



HELICOBACTER PYLORI ZEHAZTEKO ARNASAN BOTATAKO UREA C13-REN TESTA (UB-TEST) EGITEKO ARAUAK

ZER DA PROBA HAU?

Helicobacter Pylori izeneko bakterioa dagoen diagnostikatzen laguntzen duen proba bat da. Urdaileko eta duodenoko ultzerak eta bestelako patologiak sorrarazten ditu bakterio horrek.

Baliteke medikuak beste proba batzuen bitartez bakterioa detektatu izana (urdaileko biopsien bidez adibidez) eta, antibiotiko bidezko tratamenduaren ondoren, bakterioa desagertu den jakiteko proba hau eskatzea.

PROBA EGITEKO EGUNEAN

- Proba goizez egiten da, AUOko kanpoko kontsultetako eraikineko 4. solairuan.
- Baraurik egon behar duzu aurreko gauetik, gutxienez 10 orduz (ezin duzu solidorik hartu, ez eta likidorik ere, ura barne).
- Ez duzu erre behar. Era berean, ezingo du txiklela murtzikatu.
- Probara joan aurretik ahoaren higieze zorrotza egin beharko duzu.

ZER DA PROBA HAU?

- Hamar minutuz atsedenean, eserita, egon ostean, miaketa-gelan sartuko zara. Lehen poltsan putz egingo duzu, erizainak edo probaren arduradunak emandako jarraibideen arabera.
- Ondoren, erizainak urea eta laktosa pilula bat emango dizu, eta miaketa-gelan irentsi beharko duzu urarekin.
- Hogei minutuz eserita, atsedenean, egongo zara itxarongelan, eta ondoren berriro putz egingo duzu 2. poltsan, aurretik egindako modu berean.

OHARTARAZPENAK

- Gogoan izan **proba ez dela egin behar aurreko 4 asteetan antibiotikorik** hartu baduzu.
- **Bi aste lehenago edozein antiazido** hartzeari utzi beharko diozu (omeprazola, pantoprazola, esomeprazola, rabeprezola, ranitidina...).
- Almax[®], Ziverel[®], Gaviscon[®]... edo antzeakoak har ditzakezu.

GURI JAKINARAZI BESTE HITZORDU BAT EMATEKO

- Sendagai honek laktosa dauka, eta, beraz, proba egin ondoren, eragozpenen bat nabaritu dezake. Haurdun bazaude, ezin duzu testa egin.
- Haurdun bazaude edo bularra ematen baduzu, ezin duzu testa egin.
- **Harremanetarako telefonoak:** zalantzarik baldin baduzu, deitu telefono-zenbaki honetara: 945 007592. Kontsultara joaterik ez baduzu edo hitzordua aldatu behar baduzu deitu 945 007500 telefono-zenbakira.